

GURE ERRALDOI ETA BURUHANDIAK BERRIOZARREN

Jose Luis Insausti Urigoitia



Berriozar 2001.

Argazki: Jose Luis Insausti

Iazko irailaren 2an Oretetako Buruhandi eta Erraldioen Konpartsak Berriozarrerako bidea hartu zuen ERBI autobus batean goizeko 8etan. Konpartsakoak, ordea, ez ziren bakarrik abiatu Nafarroako herrirantz, Ereintza elkarteko txistulariak, zein jarraitzaile sutsoak diren hainbat bizilagun izan zituzten bidaide Berriozarreko jaietan ospatu zen Erraldoi eta buruhandien kontzentrazioarako. Gure konpartsak, Altsasukoa (Nafarroa), Vallgorguina (Kataluina) eta Berriozarreko konpartsekin batera hartu zuen parte ekitaldi honetan.

Antolatzaileak plaza nagusian genituen zain eta zerbait jan ostean Berriozarreko kaleetatik barrena ibili ginen.

Gure erraldaien mugimenduek, jantzi zabalak eta beso askeek atentzioa eman zieten beste konpartsetako arduradun zein Berriozarreko bizilagunei eta hizpide bihurtu ere. Izan

ere, konpartsa gehienetan erraldaien besoak gorputzarekin lotuak dituzte.

Eta esan behar ere, gure buruhandiak bertaratu ziren guztien artean itsusienak izan zirela. Ziurrenik Berriozarreko bizilagunen bat oraindik inguruetatik mendiren batean ezkutatuturik izango da. Helduak beldurtu baziren, zer esanik ez haurrak, denak irteten ziren ihesi, malko artean. Bati baino gehiagori azaldu behar izan genion, buru horiek garai batean Landarbasoko haizpeetan ustez bizi zirenak irudikatzen dituztela, handia izan baitzen oso gure buruhandi deigarriek sortutako jakin mina.

Baina desfilean zehar Berriozar herriaren lagun egin ginen, eta ezin zuen beste modura izan. Erraldoiak hain modu ederrean dantzazteak ez du gutxiago merezi, eta Miguel Erkis, Iñaki Badiola, David Garcia eta Imanol Etxeberriak etengabe jaso zituzten herritarrek eskeinitako zorionik beroenak.

Erraldoiei lagun egiten izan ziren buruhandiak, eta Erik Sanchez, Imanol Etxeberria (semea), Beñat Badiola, Jose Cruz Sarasola, Juantxo Arrieta eta Jose Luis Insaustik eraman zituzten kaleetatik barna. Iruña tabernako Felix Garcia berriz, maskuri eramaile nagusia izan zen eta Ane Badiolak eraman zuen zutoihala.

Ereintza Elkarteko txistulariek berriz doinurik goxoenak sortu zituzten erraldoiek eroso eta lirain dantzatzeko. Txistularien nota bakoitzak bat egiten zuen erraldoien urrats bakoitzarekin. Bien arteko konjuntzioak atentzioa eman zion jendeari, baina batez ere Kataluniako espedizioari.

Amaitzeko egun zoragarria pasa genuela esan behar. Bertakoek ongi hartu gintuzten oso, eta eguraldia ere lagun izan genuen, eguzkiaren izpi goxoekin gozatu baikenuen desfilea.

Bazkal ostean, Berriozarreko herriak parte hartu genuen konpartsa guztioi oroigarri gisa plaka bat eman zigun, gure konpartsaaren arduradun Miguel Erkisek jaso zuena.



Argazki: Jose Luis Insausti

Berriozar 2001.



Argazki: Jose Luis Insausti

Berriozar 2001.

Bihotzez desio dut hau ez dadila izan gure konpartsaekin egin dugun azken irteera, Euskal Herriatik barna gure erraldoi eta buruhandiak erakusteko lehenengo urratsa baizik. Eta desioa egi bihurtuko ahal da...

